

txinpart⁶²

www.hurtzaroikastola.eus

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2015eko
EKAINA





txinpart⁶²

www.hurtzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

hurtzaro@ikastola.eus

DISEINUA, MAKETAZIOA eta INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Aurkibidea

Hurtzaro informatzen	3
Euskararen txokoa	12
Hatzak bete lan.....	18
Ikastolaren eguna	21
Gu ere kazetari	35

San Juan suaren bueltan kantari
edo gainetik saltoka
ikasturtea amaitu zaigu
pozez gainezka borborka
udako haize lasaigarria
eguzkitan ate joka
eta gainera Txinpart berriak
zoriona digu opa
a zer nolako bikoka!

2015eko ekaina



Ibilaldiak eta ekintzak

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
HH 1	APIRILAK 28	JANTOKIKO ARETO NAGUSIRALUR KORTAREN EMANALDIA ENTZUTEA	
HH 1	MAIATZA	IGERILEKUA	URETAN GELAKIDEEKIN ONGI PASATZEA
HH 1	MAIATZA	BIDEGORRIRA	LANDAREAK ETA BARATZAK IKUSTEA
HH 1	MAIATZA	BASERRIREN BATERA	BASERRIKO ANIMALIAK IKUSTEA
HH 2	APIRILAK 16	TXARAKO BASORA	LOREAK BILDU
HH 2	MAIATZAK 13	ELIZALDETIK BUELTA	AUZOKO DENDAK BEHATU
HH 2	MAIATZAK 20	HIPERMERKATURA	DENDA GAIAREKIN HIPERMERKATUA EZAGUTU
HH 2	EKAINA		KURTZO BUKAERAKO IBILALDIA
HH 2,3	APIRILAK 14	ERRENTERIARA, ZINEMARA	PELIKULA BAT EUSKARAZ IKUSTEA
HH 3	APIRILAK 23	ERGOIENERA	ARRAZTALOKOEKIN BATERA BARATZEAN LAN EGITEA
HH 3	APIRILAK 29	JANTOKIKO ARETO NAGUSIRA	ANTTON KAZABONEKIN IPUIN, OLERKI ETA KOPLEZ GOZATZEA
HH 2,3	APIRILA ETA MAIATZA	LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA
HH 3	MAIATZAK 7	AIARA (PAGOETA PARKERA)	ERLEEN BIZITZA GERTUTIK IKUSTEA
HH 1,2,3	MAIATZAN	IGERILEKURA	URETAN ELKARREKIN JOLASTEA
HH 3	EKAINAK 2, 3	ARRITXULORA	ELKAR BIZITZA, INGURUNEA EZAGUTU ETA DISFRUTATZEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH 1	MARTXOAK 18	OIASO MUSEORA	ERROMATAR GAIAN SAKONTZEA
LH 1	MAIATZAK 7	MENDIBILGO TXARARA	NATURA BEHATZEA
LH 1	MAIATZAK 26	KRISTINA-ENEA PARKERA	NATURA GAIAN SAKONTZEA
LH 1	EKAINAK 2-3	ASTITZERA	HARREMANAK, AUTONOMIA, ELKARBIZITZA ETA ONGI PASATZEA
LH 2	Martxoak 10	"La casa del café"-ra	Kafearen prozesua ezagutzea
LH 2	Apirilak 23-24	Oiartzun irrira	Prestatutako irratsaioa grabatzea
LH 2	Maiatzak 4	Errenteriako zinemaldira	Euskarazko pelikula ikustea
LH 2	Maiatzak 6	Ikastola-Karrika-Ergoien -Ikastolara	Natura aztertzea
LH 2	Ekainak 2-3	Sastarrainera	Mailako harremanak sendotzea eta autonomia lantzea

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH 3	Martxoak 18	Donostira	Haize orraza ezagutu
LH 3	Apirilak 23	Urkabera	Kometak probatzea
LH 3	Apirilak 27	San Markosera	Eguna ospatzera eta Gotorlekua ezagutzera
LH 3	Apirilak 28	Udaletxera: J.R. Soroizen emanaldira	Euskaraz Bizi kanpaina
LH 3	Maiatzak 4	Oreretara	Zinema euskaraz kanpaina
LH 4	Martxoak	Zientzia Museora	Uraren egoera ezberdinen tailerrak egin eta zientziak gozatzea
LH 4	Martxoak 25	Penadegi / Ur biltegira	Oiartzungo uren ibilbide eta antolaketa ikustea
LH 4	Apirilak 20	Jull erakusketara	Euskarazko irakurzaletasuna sustatzea
LH 4	Apirilak 23	Jull bozketara	Euskarazko liburu gustukoena aukeratzea
LH 4	Apirilak 28	J.R. Soroizen "Tramankuluak" ikuskizuna ikustera	Euskaraz Biziko 3. kanpainako ekimena
LH 4	Apirilak 29	San Markora	Euskal kultura sustatzea eta zikloko harremanak sendotzea
LH4	Maiatzak 5	Tinko "Robots" ikustera	Zinemaz euskaraz gozatzea
LH4	Maiatzak 5-6-7	Oiartzunen (Alotzekoei ongi etorria, herriaren aurkezpena, afari merienda...)	Zuberoako ikasle, irakasle eta herriarekin harremanak izatea
LH4	Maiatza	Oiartzun ibaira	"Vamos a botar los barcos contruidos en clase" Gaztelaniako 5. unitatea (Al agua patos)
LH4	Maiatzak 25-26-27	Baratzera	Txanelako proiektuarekin lotuta mailako harremanak indartzea



Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH 5	Maiatzak 6	Antton Kazabon idazlearen bisita	Irakurzaletasuna indartzea
LH 5	Maiatzak 14	Ikasleen bertso jaialdia Madalensoron	Urteko lana plazaratzea
LH 5	Maiatzak 28	Aiako Pagoeta parkera eta parketxera	Ingurumena lantzea
LH 5	Ekainak 1, 2, 3	Gasteizko Zuaza irlara	Elkarbizitza eta harremanak lantzea. Ongi pasatzea, ikasturteari bukaera ematea...
LH 6	Apirilak 30	Ikastolan	Joxe Mari Iturralde idazlearekin saioa
LH 6	Maiatzak 14	Madalensoron	Bertso jaialdia
LH 6	Maiatzak 28	Ikastolan	Lexoti bertso jaialdia
LH 6	Ekainak 3, 4 eta 5	Arotz-enean (Etxarri Larraun)	Elkarbizitza eta harremanak lantzea. Ongi pasatzea, ikasturteari bukaera ematea...

Bigarren Hezkuntza DBH 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	ZER	NON	HELBURUA
DBH 1	Apirilak 23, goizez	Juul bozketa	Ikastolan	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna sustatzea
	Maiatzak 19 - 26	Eskola agenda 21:	Ikastolan Kontsumo bide tailerrak	Elikadura jasagarria
	Maiatzak 22	Eskola Agenda 21:	Oiartzungo Udal Herri batzarra	Ingurumenarekiko pleno aretoan sentsibilizazioa
	Maiatzak 28	Lexoti saria	Ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
	Ekainak 10-11-12	Espejo	Espejon (Araba)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekainak 19	Antzerki emanaldia	Ikastolan	Antzerki tailerrean egindako lana ikustea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
DBH 2	Apirilak 23, goizez	Juul bozketa	Ikastolan	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna sustatzea
	Maiatza 5 / 12 / 19	Bizikleta saioak herrian	Herrian zehar (Gorputz Hezkuntza) (3 saio)	Bizikletan seguru ibiltzeko ikastaroa
	Maiatzak 19 - 26	Eskola agenda 21:	Ikastolan Kontsumo bide tailerrak	Elikadura jasagarria
	Maiatzak 22	Eskola Agenda 21:	Oiartzungo Udal Herri batzarra	Ingurumenarekiko pleno aretoan sentsibilizazioa
	Maiatzak 28	Lexoti saria	Ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
	Ekainak 4 / 8	Oiartzun ibaiaren azterketa		Zientzia tailerreko proiektua aurrera eramatea
	Ekainak 10-11-12	Acedo	Acedon (Nafarroa)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
DBH 3	Apirilak 23, goizez	Juul bozketa	Ikastolan	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna sustatzea
	Maiatzak 22	Eskola Agenda 21:	Oiartzungo Udal Herri batzarra	Ingurumenarekiko pleno aretoan sentsibilizazioa
	Maiatzak 22 - 25	Arraunketa Ibaikakoekin	Errenterian	Arraun mundua gertutik ezagutzea
	Ekainak 10-11-12	Gorliz	Gorliz (Bizkaia)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
DBH 4	Martxoa	Eurohiriko Programa "Txingudi eta Oarso aldean", 1. jardunaldia	Irungo eta Harritxuloko aterpetxeetan	Mugaz gaindiko trukea
	Apirilak 23, goizez	Juul bozketa	Ikastolan	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna sustatzea
	Maiatzak 22	Eskola Agenda 21: Herri batzarra	Oiartzungo Udal pleno aretoan	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa
	Ekainak 8-9-10-11-12	Catalunya: Coma-ruga	Coma-rugan (Tarragona)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Eurohiriko Programa "Txingudi eta Oarso aldean", 2. jardunaldia.	Hondarribia, Irun, Hendaia, Pasaia eta Oiartzunen	Mugaz gaindiko trukea
	Ekaina	Emaginaren saioa mailako neskekin	Ikastolan	Osasun heziketa
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala

«Gure ikastolak jakin du bere sorrerako izaerari eta baloreei sendo eusten»

Zazpi urteren buruan, Iñaki Irastorzak Asier Bergaretxeri pasa dio Haurtzaro ikastolako lehendakariaren lekukoa

Aurtengo ikasturtean lehendakari karguaren aldaketa eman da Haurtzaro Ikastolan. Iñaki Irastorzak ikastolako burutza zazpi urte eman ondoren Asier Bergaretxeri pasa dio erreleboa. Urte horietan guztietan egindako lanari errepasoa eman dio Irastorzak elkarriketa honetan.

Gogoan al duzu orain zazpi urte kargua hartzerakoan zeure baitan izan zenituen bizipenak?

Urte batzuk pasa dira eta den-denekin ez naiz gogoratzen, baina bi behintzat ondo gogoan daukat: batetik, ilusio handia, eta bestetik kezka.

Lehen ere aipatu izan dut; gu, bost senideak, ikastolan ikasiak gara, eta esango nuke gure ikasketak, orduan hastapenetan zen Haurtzaro ikastolan egin izanak, gerora eragin handia izan duela gure bizitzako esparru guztietan. Garai hartan jende askok egindako ahaleginari esker izan genuen guk ikastolan ikasteko zortea, beraz, argi nuen noizbait nik ere itzuli nahi niela jasotakoaren zati bat behintzat. Orain zazpi urte Kontseilu Errektorean nenbilen, eta eskaini zidaten ardura berri hura, jasotakoa itzultzeko ahalegin horretan pauso garrantzitsua iruditu zitzaidan, beraz izugarriko ilusioz hartu nuen.

Jakina, ilusioaz gain banituen barruan beste bizipen batzuk, eta tartean, nire buruarekiko kezka. Behin hasiz gero gauzak txukun-antzerantz egiten saiatu nahi nuen, baina ni horrelako ofiziotan sekula aritu gabea nintzen. Gainera, ni izatez lehor xamarra naiz, ez naiz jendartean-eta oso iaioa, xinpatiko horietakoa alegia, eta lehendakari karguak jendearekin eta jendaurrean dezenteko jarduna eskatzen du.

Orain, kargua uztean, zein da nabari duzun sentipen nagusia?

Kargu aldaketa ez dugu egun batetik bestera egin, beraz sentipenak ere patxadaz egoerara egokitzen joango ziren. Iazko udan heldu genion erreleboaren gaiari, gauzak garaiz eta txukun egin nahi izan genituen, eta behar zuen denbora eskaini. Lanketa horren ondorioz pertsona egokia lortu genuen lehendakari kargurako, Asier. Bestalde, aldaketa era mailakatuan egin dugu; abenduan epeen plangintza

egin, Batzar Nagusian bazkideei asmoen berri eman, urte hasieran Kontseiluan lehendakari berria izendatu, eta ikasturtea bukatu bitartean Asier eta biok lehendakariaren betebeharrak elkarrekin egin, mar-txa hartzen joan zedin. Beraz, gauzak horrela, lasaitasuna da orain nabari dudana sentipen nagusia, hain zaila izan ohi den erreleboaren gaia txukun egin dugulakoan.

Bestalde, ikastola honek jende askoren ahaleginari esker eman dituen aurrerapausoetan nik ere nire aletxoa jartzen dudala jakiteak, inolako harrokeriarik gabe, baina halako harrotasun punttu bat duen sentipena sorrarazten dit barruan. Dena den, esango nuke azken sentipen hau lehendakari karguak baino gehiago eragiten didala parte hartzen dudana beste hainbat batzorde eta taldetan jarduteak.

Konparatzerik ba ote dago une hartan Haurtzaro ikastolak zituen eta gaur egun dituen erronkak?

Ikastolaren erronkak beharren arabera aldatzen eta aurrekoak lortu ahala berriak sortzen joaten direnez, une bakoitzean aurrean dugun erronka da garrantzia duena, eta horretan jarri behar izaten ditugu indarrak. Plangintzak eta aurreikuspenak epe luzera egiten dira ikastolan, eta ondorioz aurrekoek hasitako lanaren jarraipena egiten dute hasieran datozenek, eta gure kasuan ere halaxe izan da. Hala ere, egia da urte hauek nahiko bereziak eta lan asko egin beharrekoak izan direla bai gure ikastolan, bai ikastolen taldean, eta bai gizartean ere; krisi ekonomikoa bete-betean, Eusko Jaurkitzearen murrizketa ekonomikoa, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteen sorrera prozesua, Ikasys, EKI eta orokorrean IKT-en ezarpena eta zabalkundea, Plan estrategikoak, KEI egitasmoa, lurren lagapena, Urmendi partzuergoaren erailkin berria, obra eta inbertsio handi xamarrek ikastolan... bakoitza bere neurrikoa, baina erronka asko!

Orain ere lehenik dauzkagunei aurre egin, eta indarrak ondo neurtu ondoren, berriei ekin beharko diegu. Ez zait iruditzen geldirik egoteko moduan izango garenik. Jakina, erronkak ere, garaian garai-koak.

Eta urte hauetan Haurtzaro Ikastola bera asko aldatu al da? Zertan?



Aldatu, aldatuko zen noski, baina egunero dabilenari kosta egiten zaio alde handirik nabaritzea. Segur asko dozena-erdi urte kanpoan pasa dituenak guk baino aldaketa handiagoa sumatuko zuen berriz ikastolara inguratzean. Ikastola erakunde bizia da, dinamikoa, berritzailea, eta garai berrietara egokitzen jakin duena, aldaketa bakoitzarekin Oiarzungo familien beharrei erantzunez.

Ongi egokitzen jakite hori behar-beharrezkoa izan dugu hobetze bidean, baina era berean, gure ikastolak jakin du bere sorrerako izaerari eta baloreei sendo eusten. Aurrerantzean ere horien arteko oreka ondo kudeatzea izan daiteke gure erronka nagusienetakoa!

Kontseilu Errektorean bi urteko ibilbidea egin ondoren, Asier Bergaretxe buru-belarri ari da lanean lehendakari karguan. Bere ustez, bi dira ikastolaren lehentasunak: “Ikuspegi orokor bate-

tik begiratuta, Hezkuntza Lege berri baten beharra dagoenez, berau bultzatzea da gure lehentasuna, eta ahal bada, lege horren sortze prozesuan parte hartzea, gure beharrak bertan hasieratik ondo jasoak izan daitezen.

Barrura begira, berriz, belaunaldien arteko transmisioa ongi egitea eta aurrerantzean ere transmisio hori egoki egin dadin beharrezkoak diren tresnak sortzea izango litzateke lehentasun. Horretan, beste esparru guzietan bezalaxe, oso baliagarri izango zaigu duela urte batzuk abiatu genuen kalitate egitasmoa. Hortaz, egitasmo horren garapena ere lehentasunen artean sartuko nuke, eragina esparru guztietan sumatuko baita”.

Asier Bergaretxe eta Iñaki Irastorza.



Xiberoako Basaburua eta Eperra ikastola, eta Haurtzaro ikastolaren arteko lankidetza hitzarmena sinatu dugu. Lehen esperientzia ere martxan jarri dugu.

Maiatzaren 5etik 7ra arte Alozeko Basaburua ikastolako 25 ikasle eta 2 irakasle gure artean izan genituen. Maiatzaren 6an, bi ikastolen arteko harremana gauzaten ari zen egunetako batean, eta bi ikastoletako ikasleak elkarrekin zeudela aprobetxatuaz, lankidetza hitzarmena sinatu genuen gure ikastolan. Ikastolen arteko hitzarmena sinatzearekin batera, Udalbiltza eta Euskal Herriko Ikastolen elkartearen arteko hitzarmena ere sinatu zuten, "Elkarrekin Euskal Herria" programa sortzeko adostu dutena.

Programa honen helburua da "lurralde ezberdinetan kokaturik dauden ikastolen arteko kohesio, barne eza gutza eta elkartasun handiagoa bultzatzea. Ikasle, irakasle eta gurasoen arteko trukaketak sustatuz, giza harremanak indartzeko, euskararen alde eta euskalkien alde, kirola, teknologia berriak, elikadura burujabetza... edota inplikaturiko aldeek landu nahiko luke ten beste edozein gai lantzeko". Ikasleen arteko trukeari hasiera eman diogu dagoeneko. Gainontzeko taldeen arteko trukea bideratzen ari gara.



X. Bertso festa

arrakastatsua Madalensoro pilotalekuan

Beste urte batez, Madalensoro lepo bete zen maiatzaren 14an. Izan ere, ikasturte amaierako bertso saioa egin zen eta Haurtzaro Ikastolako LH 5. eta 6. mailako ikasleek eta Bertso eskolako gaztetxoek parte hartu zuten, Elizalde Herri Eskolakoekin batera. Horretarako, ikasturte osoan zehar bertsolaritza landu dute ikasgeletan LHko ikasle horiek. Hala, taldeka bertso sorta ederrak eskaini zituzten.

Bertsozale elkarteak martxan jarritako proiektuaren koordinatzaileak, Ander Lizarralde bertsolariak, egin zituen aurkezpen lanak eta gaztetxo guztiak jarri zituen lanean. Era askotako gaiak izan ziren saioan, zein baino zein xebleagoak: sanferminak, ehiza, herri kirol modernoak, zaharren etxe martxosoa, super heroiak, baserria, bizilagun komunitatea, kruzero xeblea, eroetxeko protagonistak, ospitale arrisku-sua, kultura desberdinetako ezkontzak...

Amaieran, Lizarraldek gurasoen babesa ere eskertu zuen, baita irakasleen lana ere, batez ere "astero-astero emandako lanak zintzo egiten dituztelako ikasleekin". Saioaren amaiera Lizarraldek berak eman zuen arrunt txalotua izan zen bertsoarekin. Harmailetan zeuden guraso eta bertsozaleek gaztetxoek bertsolaritzan ikasi dutenarekin gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

JAKIUNDE 2015

Haurtzaro ikastolako DBH 4ko ikasle batzuek Jakiunde antolatutako JAKINMINA programan parte hartu dute.

Jakin-mina gazteen garapen intelektuala eta pertsonala bizkortzera dago bideratuta. Horretarako motibazio akademikoa eskaintzeko asmoarekin goi mailako profesionalak emandako konferentziak eskaintzen ditu. Diziiplina anitzeko programa da (Kimika, Fisika, Biologia, Neurozientziak, Filosofia, Osasun gaiak, Literatura, Zuzenbidea, Historia...). Jarduera horrekin gazteen jakintza-eremua zabaltu eta haien jakin-mina piztu nahi da, beren interesa erakarrita, ezezaguna bilatzera anima daitezten. Gutxienez 4 saiotara joan direnek diploma bana jaso dute eta sari gisa POLIMAT ikerketa zentroko laborategiak ikusteko aukera izan dute.



Lan ta lan...

Agenda 21

Azoka eta erakusketak antolatu ditugu eta bisitatu, garaiko eta bertako produktuak ezagutzeko. Taloak egin ditugu, esnekiak (mamia, jogurta egin), ogia egin dugu, ezti eta erleak ezagutu ditugu. Erlauntza bisitatu zuten gure ikasle txikiek. "Sukaldatu" proiektuan (Basque Culinari Center/ Eroski/ Ikastolen elkarte) parte hartu dugu ... Zenbat ikasi dugun!

Eta segi! Askari osasuntsuak antolatu, jakiak ezagutu, baratzeak bisitatu eta bertan lan egiteko aukera izan dugu, eta ikastolan ere baratze txikia antolatu dugu. Jakien dastatzea antolatu, elikadura eta osasuna landu, mural ederrak egin ditugu. Inkestak egin ditugu eta ondorioak atera... Elikaduraren inguruko arazoak aztertu ditugu eta elikadura subiranotasuna zer den ikasi.

Lan asko eta asko, bakoitzak bere mailan. Inguru-
nean, matematikan edo informatikan, natur arloan edo ingelesean. Ingelesean, gaztelaniaz eta euskaraz. Arlo ezberdinetan egin dira lanketak. Lan eta lan aritu gara elikadura eta jasagarritasuna uztartuz. Gure elikadu-

ra ohiturak aztertu ditugu eta kontsumitzen ikasteko hainbat ekintza egin dugu.

- Oiarzungo udalaren laguntzaz, IZADI ENPRESAK tailerrak eskaini zizkigun:
 - 2015/03/16: HHko 3. mailan zentzumenen jolasa
 - 2015/03/17: LHko 2. mailan elikagaien jatorria
 - 2015/03/25: DBHko 3. mailan elikagaien jatorria
- KONTSUMOBIDEK eskainiko tailerrak egin dira LH osoan eta DBH 1 eta 2. mailetan (maiatza bukaeran).
 - Frutak eta barazkiak / litxarrerriak. LHko 1. eta 2. maila.
 - Elikagaiak - etiketak eta osaera / elikagaien elaborazioa. LHko 3. eta 4. maila.
 - Supermerkatua eta erosketa / kontsumitzen ikasiko dut. LHko 5. eta 6. maila.
 - Elikadura eta nutrizioa / bidezko merkataritza. DBHko 1. eta 2. maila.
 - Gurasoentzat tailerra: elikadura ere bada hezkuntza.





Maddi Puy eta Oihan Astigarraga sarituak

'Urruzunotarrak gehituz' literatura ekimenean sarituak izan dira Maddi Puy eta Oihan Astigarraga ikasleak

Gazteen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko lehiaketa da 'Urruzunotarrak gehituz' literatura-ekimena. Aurten, Maddi Puy eta Oihan Astigarraga DBHko 4. mailako ikasleek bikaintasun aipamena lortu dute, Maddik «Oroi-tzapenak» lanarekin, Poesia arloko B mailan, eta Oihanek maila bereko Poesia arloan «Zergatik?» lanarekin.

Aipamena jasotzeak honako hauek ditu barne: abuztuaren 31tik irailaren 4ra literatura-egonaldia Elgoibarko Aubixa aterpetxean, aurtengo Urruzunotarrak bilduko dituen; bertan goizetan literatura-tailerra izango dute eta gero, egunean zehar, beste ekintza batzuetan parte hartzeko aukera. Era berean, lanak Sagastiberri saileko liburuan argitaratuko dira.

Urte luzez indarrean izandako Urruzuno literatura lehiaketaren jarraipena da oraingo 'Urruzunotarrak gehituz' literatura-ekimena. Ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna indartzea du helburu, hitz lauz edo olerkiz, euskarazko sormena belaunaldi gazte berrietan indartuz. Ez da asmo hutsa, joan den mende laurden luzeko praktikak ondo frogatu duen gertakaria baizik: Urruzuno saria irabazi izan duten hainbat neska-mutil egungo euskal idazle ezagunen artean daude.

Haurtzaro ikastolako ikasle ohi mordoxka dira Urruzunotarrak. Besteak beste, Garazi Ansa, Usua Arbelaitz, Ekiñe Aristizabal, Izar Azpiroz, Olaia Azpiroz, Leire Jauregi, Goiatz Labandibar, Ane Badiola, Olatz Mitxelena, Uxue Agirre...



19. Korrika

Aurreko alean aipatu genuen 19. Korrika oso arrakastatsua izan zela gure ikastolan, eguraldia lagun izan ez genuen arren. Hona hemen horren lekuko diren argazkiak:

HIRUGARREN KANPAINAN IRAKURKETA IRABAZLE!

Urtero egiten den bezala, aurten ere apirilaren 23an, Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira, literatur hauteskundeak antolatu dira Euskal Herriko Ikastoletan eta baita gurean ere. Juul kanpainaren barruko egitasmoa da hau, eta haur eta gazte literaturan argitaratutako libururik eta ilustratzailearik onenari botoa emateko eskatzen zaie ikasleei.

Aurtengoak 17. edizioa izan du, eta ikastolan LH 3. mailatik hasi eta DBHko 4. mailara arteko ikasleek eman dute botoa. Haurtzaro ikastolako libururik bozkatuenek Euskal Herriko emaitzekin bat egin dute. Hauek izan dira:

- LH 2. zikloan: *Nur eta dortoken uhartea*, Toti Martinez de Lezea, Erein.
- LH 3. zikloan: *Gizajo baten egunkaria*: Rodricken legea, Jeff Kinney, Alberdania.
- DBHn: *San Ferminetan Lesakan*, John Andueza, Elkar.
- *Ilustratzailea Juan Luis Landa.*

Euskaraz bizi egitasmoaren barruan, irakurzaletasunak gune garrantzitsua izan du hiruhileko honetan. Apirilaren 20tik 30era bitartean, Antton Kazabon eta J. M. Iturralde idazleak etorri ziren bisitan, Jon Zabaleta ilustratzailea ere bertan izan genuen, irakasleek ipuin-kontaktak antolatu zituzten eta J. R. Soroizen Tramankuluak eskolan antzezlanak ikusteko aukera izan zuten ikasleek.





HH

LUR KORTA ETA ANTON KAZABON HHKOEKIN

AURTEN ERE, EUSKARAZ BIZIKO 3.KANPAINAREN HARIRA, IPUINEN MUNDUAN MURGILDU GARA. URTERO ANTOLATZEN DUGUN IPUINEN TXOKOAN BI GONBIDATU BEREZI IZAN DITUGU GUREKIN: HH1.MAILAKOAK LUR KORTAREKIN, ANTZEZLE ETA IPUIN KONTALARIAREKIN, IPUINAK KONTATZEN ETA IPUINEKIN JOLASTEN ARITU GINEN ETA HH 3.MAILAKOEI ANTON KAZABONEK, IRAKASLE ETA IDAZLEAK, ERRIMA JOLAS, IGARKIZUN, OLERKI ETA IPUINAK KONTATU ZIZKIGUN.

OSO GUSTURA ARITU GINEN BI ARTISTA HAUEKIN. OSO ONGI PASA GENUEN! ESKERRIK ASKO!



LH 1zikloa

JON ZABALETA ETA ANTON KAZABON

AURTEN 6 ETA 7 URTEKO IKASLEAK, BISITA BIKOITZA IZAN DUGU JULL KANPAINAREN HARIRA, IKASTOLAKO ARETO NAGUSIAN.

APIRILAREN 27AN, 9TAN HASI ETA 10AK BITARTE, GURE IKASTOLAKO IRAKASLE ETA IDAZLEA, ANTON KAZABON ETA JON ZABALETA ILUSTRATZAILE HERNANIARRAREN BISITA HAIN ZUZEN ERE.

BERTAN ANTON KAZABON IPUINA KONTATZEN ARITU ZEN ETA BITARTEAN JON ZABALETAK IRUDIAK EGIN ZITUEN.

EDERKI ASKO PASA GENUEN! ESKERRIK ASKO ANTON ETA JON!



LH2

J.R. Soroiz

Apirilaren 28an Udaletxeko Pleno aretoan J.R. Soroizen jarduna ikusteko plazera izan genuen LH2 zikloko ikasle eta irakasleok.

Tarimaren gainean apal batzuk. Soroizek berak esan bezala, urteetan zehar jaso, erosi, oparitutako, museoak eskainitako, Tramankulu mordoxka ikus zitekeen.

Halako batean ate nagusitik beste tramankulu bati eraginez, piztiak uxatzeko orroa? J.R. Soroiz agertu zen agerraldian. Aurkezpenak egin ondoren, hau ere aspaldi batean irakaslea izan omen zen, ikasleei sormena nola piztu, idazteko gogoia nola sortu, idazteari beldurra nola kendu pentsatuz ipuina, istorioa kontatzen hasi zen Jose Ramon.

Bere ikasle bati ipuina sortzeko utzitako tiraderez egindako altzaritxo batekin hasi zen, lehenengo tiradera ireki eta hiru kanika xume, beste batean kaxa bat. Hurrengoan painelua... hiru gauza horiekin sortu zuen Soroizek lehen ipuina.

Bigarren istorioa Zurriolako hondartzan paseatzen zebilela estropezu egin eta kutxatila batean liburu berezi bat eta gutun bat topatu omen zituen. Neskutila batek gehien maite zituen liburuetatik orri bana kendu eta hirunaka bolatxoak egin eta jasoak zeuden liburuak aurkeztu zigun. Bolatxoan hitzak ageri ziren. Hurrenez hurren, hiru hitzekin egindako istorioa kontatu zigun, hozkailu, aspiragailu eta itzala, "Nemesioren itzala".

Ondoren, Caledonia zaharreko hizkuntza bereziaz aritu zen Soroiz, soka eta lokarritz osaturikoa. Ikasleek ere probatu zuten "hizkuntza" berri hori, baita istorioak asmatu ere!

Bukatzeko Soroizek Zurriolan topatutako liburuko bolatxo bat eman zigun. Han ageri ziren hitzekin ipuin bat sortu eta berari bidaltzeko eskatu zigun. Mailan erronka onartu eta horretan hasiko gara. Bueltan Soroizek bolatxoa eta guk sortutako ipuinak eskuratuko ditu.

Sentsibilizazioak jositako jarduna J.R. Soroizek eskaini ziguna, bikainekoa. Aukera baduzue animatu Tramankulu ikuskizuna ikustera.





LH5

Antton Kazabon

IDAZLEA GUREKIN

Maiatzaren 6an LH5 mailako ikasleek aukera izan zuten Antton Kazabon idazlearekin egoteko eta disfrutatzeko. Era guztietako makina bat galdera erantzun behar izan zituen Anttonek. Gainera, ikasleak aho-korapiloak irakurtzera animatu zituen euren artean antolatu zuen lehiaketa batean. Ederki pasa zuten eta oroimen ona dute egun horretaz.



LH6

Joxe Mari ITURRALDE

Joxe Mari Iturralde, idazle tolosarraren bisita jaso dugu apirilaren 30ean. Bere hainbat liburu eta liburuetan agertzen diren pertsonaiak aurkeztu dizkigu: Risky, Anuska... Eta honekin batera, gure imajinazioa lantzeko asmoz, zenbait erronka eta joko egin behar izan ditugu bere gidaritzapean. Oso gustura egon gara eta saioa benetan motza egin zaigu. Hori bai! Imajinazioa sobran dugula ere erakutsi diogu!



KUADRILLATEGI



Kaixo Txinpartzale denai, ta kaixo Kuadrillategiko guziyai!

Urte bat gehioz, alletu ga Kuadrillategiko kurtso bukaerara're. Aurten, arront kurtso bereziya izan dugu, sekula biño gazte gehio izan baittugu.

Kurtso hasiera gogoz hartu genun. Iya 120 gaztek eman zuten izena aurtengun ta Kuadrillategiko egunak aurea jon ahala, plangintzak itteko ekintzan proposamenak hobiak izan ttugu. Izan e, nahizta egualdiya ez dugun lagun izan, gogotsu ta ilusiyukin ibili ga ta hoi re gue proposamenetan nabaittu da: pizza tallerra, pintxo lehiaketa, beldur gaua, ur jolasak, asteburu pasak, afayak, masaje tailerrak, eskalada, margoketa lanak, ginkanak... erki ibilli ga!

Arront urte politta izan dugu. Gaztiak oso ongi pasa dugu ta hezitzallik e asko disfrutatu dugu. Kurtso bukaerak ta uda ate joka izatik alaitasuna kartzen du be baitan biño batzutan tristura re badakar. Izan e DBH2ko gaztiak azken urtia dugu

Kuadrillategin. Hau pena! Pena gaztiantzat ta pena hezitzallintzat!

Aurtengoz, haxe izango da azkeneko aldiya gue berri izango zutena Txinparten, biño datorren ikasturtian berriz e hemen izango ga zuen artian gue berri emateko!

Kuadrillategiko hezitzallin partez, DBH1ekui udarik hobena desiyo dizuegu ta datorren urtian berriz e topo ingo dugu ekintza berriyak itteko gogoz. DBH2kui berriz, batetik, etorkizun oparua opa zattuztegu ta bestetik, eskerrik berunak ematen dizkizuegu gure artin horren pozik eotetik. Hobenak zazte gaztiak! Bukaera hau beti izaten da gazi-gozo bigarren malla-kuntzat biño ez ahaztu sekula Kuadrillategiko atiak zabalik ttuzutena nahi zuteneako.

Besteik gabe, Txinparteko irakurle guztiyai ta Kuadrillategiko partaide guztiyai, ikasturte bukaera ona izan ta udara hobia! Aproxto topea!

Kuadrillategi.

DBH 4. mailakoen agurra:

Beste urte bat joan zaigu, eta urtero legez DBH 4. mailako ikasleek agur bero bat eskaini nahi dizuegu. Eskuttunen igarotako urte hauetan lana alde batera utzita barre eta algara izugarriak bota ditugu denok elkarrekin talde zoragarri bat osatuz. Aurtengo taldea inoiz baino handiagoa izan da, interes handia eta lanerako gogoia erakutsi dugu. Kanpaina ezberdinetan, momentu ezberdinak bizi izan ditugu, une estu

eta bereziak, gure oroimenean geratuko direnak. Hala ere, ez da euskararen alde lan egingo dugun azken ostirala izango, izan ere hemendik kanpo ere jarraituko dugu guk hainbeste maitatzen dugun hizkuntza hau babesten, gure zati txikia aportatuz. Hau guztia ere eskertu nahi genieke azkeneko urteetan gure alboan eduki ditugun irakasleei, Maider Lekuona eta Donibane Azkarateri, izan ere zuek lan handia egiten duzue gurekin batera. Nahiz eta hemendik joan, eta gure azken lau urte hauek oso azkar pasa izan, hona, ikastolara, etortzeko asmoak ere badaude, aurrekoek egin duten bezalaxe. Ikastola gure etxea bihurtu da, eta ateak zabaldurik edukiko ditugula ere argi gelditu zaigu denoi.

Beraz, gehiegi luzatu gabe, agur bero bat denoi, eta mila esker emandako guztiagatik.

DBH 4. Mailako Eskuttuneko ikasleak



UREPELETIK URMENDIRA!!!!

Martxun 19yan hasiera eman zitzayon 19. korrikari. UREPELen hasi ta ttipi-ttapa Oiartzuneño alletu zen, baita gure haur eskola're!

Aurreko astia prestaketetan buru-belarri pasa genun: dortsalak iñ, bidegorritik barrena musikan errit-mun entrenamentuk, ekipaziyua pronto utzi, testiguk prepatu, ... Dena prest genun egun haundirako!!

Goizin goiz fuerte gosalduta torri giñan haur eskola ta halako batin, itxaferua aittu genun Ugaldetxotik. "Heldu dela Korrika, hemen dela!". Denboik galtzeko ez genunez, ta lesioik ez izateko, luzapen ta bero-keta sayua izan genun.

Korrikakin batea sartu giñan ikastolako anfiteatroa, ta hara ze **SORPRESA** txalo zaparrada batekin jaso genun ikastolako ikasle, irakasle ta Urmendiko gure tikiyen ongietorriya. Haik emantako indar ta animumkin gure 5 kilometruk ziztu biziyan in genittun!

ukatutakun, haur eskolara bueltatu giñan bazkai goxo batekin indarberritzea, ta korrikak bere ibilbidia seittu zun BILBOruntz. Hemendik bi urteta re hementxe izango ga berriz e ilusiyukin parte hartze-ko pronto!

URMENDI'RE EUSKAHALDUN!!!!

*Idoia Lopez, Maitane Crespo, Anne Hertze,
Pilare Etxebeste eta Aitor Iraola
Urmendi Haur Eskolako
irakasleak*





Haur Hezkuntza 1

IPUINEN MUNDUAN MURGILDU GARA

EUSKARAZ BIZIKO 3. KANPAINAREN BERRI EMATERA ARGITXOREN LAGUNTZAILEAK ETORRI ZIREN GELARA.

ARGITXO OSO POZIK DAGO GUREKIN EUSKARAZ HITZ EGITEN SUMATZEN GAITUELAKO.

BI ASTETAN ZEHAR IPUINEN MUNDUAN MURGILDU GINEN; ALDE BATETIK, ETXETIK EKARRI GENITUEN GUSTUKOEN DITUGUN IPUINAK GELAN IKUSI GENITUEN. BESTETIK, BESTE MAILA BATEKO IRAKASLEEK ISTORIO POLITAK IRAKURRI ZIZKIGUTEN. GUK GOXO-GOXO ENTZUN GENITUEN!

ETA AZKENIK, LUR KORTA IPUIN KONTALARIA ETORRI ZITZAIGUN IPUINAK KONTATZERA ETA JOLAS BATZUK EGITERA. EDERKI PASA GENUEN!



Haur Hezkuntza 2



UDABERRIA IRITSI DA

KAIXO, LAGUNOK!

BAI, LAGUN MAITEAK, UDABERRIA IRITSI DA, IZADIA ESNATZEN HASIA DA ETA GAI HONEKIN OSO ONDO PASA DUGU. BA AL DAKIZUE ZER IKASI ETA IKUSI DUGUN EGUN HAUETAN?

UDABERRIAZ HITZ EGIN DUGU, SORTZEN DIREN LOREEZ, EGITEN DUEN EGURALDIAZ, TOPATZEN DITUGUN TXORIEZ, ZUHAITZEI UDABERRIAN GERTATZEN ZAIONA IKUSI DUGU, ETA GELAN HABI POLITAK EGIN DITUGU. HORREZ GAIN UDABERRIKO OLERKIEN ETA ASMAKIZUNEN BILDUMA OSATU DUGU.

ONDO PASA, MAHASPASA!



Haur Hezkuntza 3



ARRAZTALOKOEKIN BARATZEAN LANEAN




IKASTURTE HONETAN JASO DUGU OIARTZUNGO GAIXO PSIKIKOEN LAN ETA GIZARTE INTEGRATZIOAN LAN EGITEN DUEN ARRAZTALO ELKARTEAK EGINDAKO GONBITA. HORI KONTUAN HARTUZ, UDABERRIA BARATZEAREN GAIAREKIN LOTU GENUEN, ETA ERGOINERA JOAN GINEN BERTAN DUTEN BARATZERA. HAN, BERAIEKIN BATERA TALDEKA LANEAN ARITU GINEN. EDERKI PRESTATUTA JOAN GINEN BOTAK ETA ESKULARRUAK JANTZITA, ETA HANTXE ARITU GINEN HAIEKIN BATERA ARRAZTALOA, PALA ETA MAKILEKIN ZULOTXOAK EGITEN ETA ESTALTZEN. BESTE BATZUEN ARTEAN, ARTOA ETA KALABAZA EREIN GENITUEN ETA PIPERRAK ETA TIPULAK LANDATU ERE BAI. ARRAZTALOKOAK ARRUNT JATOR EGON ZIREN GUREKIN, PRIMERAN GIDATU GINTUZTEN, ETA, GAINERA, ASKO IKASI GENUEN. ZE NOLAKO GOIZ POLITA PASA GENUEN!



EKAINEAN BARATZERA ITZULI GARA ZEIN EDERRA DAGOEN IKUSTERA.




Ikastolaren eguna 2015











HELDU DA UDABERRIA ETA LORATU DA GURE IRRIA!

Denbora badoa eta denbora badator. Egunak joan dira eta hilabete berriak etorri. Urtaro koloretsuarekin egin dugu topo ohartzerako: Udaberria!
 "Naturaren sekretuak" gaia lantzen hasiak garen honetan, naturaren ezaugarri, berezitasun, kuriositate eta abar guztiak argitu nahian gabilta.
 Oiarzungo Mendibilgo txara inguruan ibili gara hegala astinduz, tximeleten gisan. Astiro-astiro aritu gara barraskiloen moduan. Eta ziztu bizian, untxi korrikalarien eran.
 Aldizkari ederra ari gara osatzen. Ez esan inori, baina honezkero lorea atera zaio aldizkariaren azalari! Loratzen doa, beraz, eta usain ederra dauka!





LH 1. zikloa - 2. maila

IBILALDIA

Aste beharrezko planik gabe al egundat?

Ba LH2. mailakoak ibilaldi hau preparatzen dituzte:

Quetzalcoatl ibilaldia - Karrika - Engien - Flautzako ibilaldia.
Guk ibilaldi hau egun guzian gure inguruan artatzen dugu.

Batetik, bizigaiak artan Engienan dagoen Argia berberia aipatuko genuke. Erti Astea da eta monumentu historikoa da.

Batetik, ber inguruan baxi eta txakurrak amesten ikusi genituen.

Bizidun artan, landareei dagokien, eguzki, zuriak eta beste mola

asko ikusi genituen.

Amuletak aldi, oronak artan ugaztuen eta hegaztiak egun guzian. Gero gabe asko ere ikusi genituen.

Ukunduak poliki dituzte bidean.

Ikusi ere eguzkiaren bat baduzte, guzian bukit eguzkiak guk infor-
mazioaren bidez egun guzian eta.

LH2. maila

IRRATSAIOA

LH2. mailakoak komunikabide gaia landu genuenez irratseak
prestatu genituen. Gero Oiarzun irratiak izan ginen eta beraien
laguntza grabatu genituen. Oro ando pora gure eta gure ustez
bikain ateratzen. Eskerrik asko Oiarzun irratiari!

LH2. maila



LH 2. zikloa - 3. maila

TXARAKO EKOSISTEMA AZTERTZEN

Txanelaren seigarren unitateko proiektua dela eta, Mendibilgo Txarara joan gara bertako ekosistema aztertzeri. Ingurua ongi behatu ondoren, bikote bakoitzak animalia eta landare bat aukeratu ditu jarraian gelan horren inguruko bilduma osatzeko.

Denetik topatu dugu: landare mota desberdinak, fruituak, intsektuak... Argazkietan ikus ditzakezue horietako batzuk.



LH 2. zikloa - 4. maila

Ikastolarako sarrera baratzean barrena

6. unitateko "Izan zirelako gara, garelako izango dira" izenburupean bizidunen ugalketa landu dugu: animalia, gizaki eta landareena. Arrazoi horregatik gure proiektuetako bat baratze bat egitea izan da. Bertan, lore eta barazki haziak erein ditugu, ondoren, sortutako landareak landatzeko. Ikasturtea bukatu aurretik bertako produktuak probatzerik izango ote dugu?





LH 3. zikloa - 5. maila

HAMAIKETAKO OSASUNTSUA



LHko 5. mailan, “Ingurunea” arloko 4. unitatean, elikagai motak, dieta, dieta orekatua, digestioa eta digestio aparatua landu ditugu.

Elikagaiak eta hauen funtzioak ezagutu eta ikasi ditugu eta dieta orekatuaren garrantziaz jabetu gara. Dieta orekatua eta osasuntsua izan behar duela badakigu jada. Bestalde ohartu gara denetarik jan behar dela proportzio egokian eta bereziki ikasi dugu oso garrantzitsua dela hamaiketako egitea gosaria eta bazkariaren arteko tartea handia delako eta bitarte horretan gastatutako energia berri behar delako.

Horregatik gelakide denon artean erabaki dugu egunero hamaiketako desberdina ekartzea opil industrialak, erositako janari prestatuak, litxarke-riak eta gozoak saihestuz.

Hau da erabaki duguna eta praktikara eramaten ari garena:

Astelehenetan fruta, asteartetan fruitu lehorrak, asteazkenetan etxean prestatutako ogitarteko-
txoa, ostegunetan gailetak eta ostiraletan zerealak.

LH 5C ikasleak





LH 3. zikloa - 6. maila

URTEBETETZE OSPAKIZUNAK GUREAN

Urtebetetzeak ospatzen ditugunean bakoitzaren jaioteguna ekarri nahi dugu gogora. Urteko egun horri behar duen garrantzia eman nahi diogunez festa giroan ospatzea merezi duela pentsatzen dugu. Horregatik, bakoitzaren urtebetetzeari giro berezi bat eman nahian ondorengo era honetan ospatuko ditugula adostuta dugu:

Urtebetetze egunean urteak betetzen duena goizean goiz zorientzen dugu. Gainera, jolas garaian urteak betetzen dituenak gelakideoi eskaintza bat ekarri eta banatzen digu: bizkotxo ederra, normalean.

Aldiz, gelakide guztien artean eskaintza sorpresa antolatzen dugu. Ospakizunerako sorpresa erabakitzeko, prestatzeko, antolatzeko eta entseatzeko jolas garaia erabiltzen ditugu. Horretarako, aldi bakoitzean bi arduradun izendatzen ditugu.

Honekin guztiarekin, harremanen loturak, ardurak, talde lana eta beste hainbat gauza lantzen ditugu ospakizun hauek aprobetxatuz.

Hona hemen zer dioten mailako ikasle batzuek ospakizun hauetaz:



Oso ondo pasatzen dugu.

Txikitan marrazkiak eta kantatu egiten genituen. Orain antzerkiak, dantzak, akrobaziak, kantatu... eta gauza gehiago egiten ditugu. Nik uste dut hobe dela antzerkiak eta horrelako gauzak egitea, hori ez baitugu inoiz ahaztuko eta algara ederrak ere egiten ditugulako.



Bai dibertigarria da, baina ez erraza. Askotan txorakeriatan egoten dira batzuk edo ados jartzea kosta egiten zaigu eta, orduan, azken egunean eta nola hala antolatu behar izaten dugu.



FICHA DE LECTURA: EL LIBRO DE LOS PORTALES

Descripción de los personajes

Protagonista: Tabit

Tabit es impecable y trabajador, estudiante de la Academia de los Portales. Es un joven listo, astuto y sutil.

Personaje 1: Caliandra

Caliandra es una bella y lista estudiante de la Academia de los Portales. Su familia es rica y ella se fue a la Academia para librarse de sus parientes.

Personaje 2: Yunek

Yunek es un pobre granjero de Uskia, una región al norte de Darusia. Yunek es insistente y pesimista, y siempre quiere lo mejor para el resto.

Personaje 3: Maese Belban

Es el loco y aparentemente viejo personaje del libro. Dicen que está loco y que mató al último ayudante que tuvo hace veinte años. Se pasa todo el día metido en su especie de laboratorio, donde genera los materiales más extraños de toda Darusia.

Resumen de la historia que se cuenta

Tabit es un alumno de último curso de la Academia de los Portales. Un día, el muchacho recibe el encargo de pintar dos portales para Yunek, un granjero de Uskia: uno en la cocina de su casa y otro en el punto de destino, en la Academia. De repente, por razones desconocidas, dicha Academia decide cancelar el proyecto.

De vuelta a casa, Tabit encuentra a Tash, un minero que extrae boradita, material rojo cuyo polvo tiene las propiedades necesarias para crear un portal. Charlando por el camino, Tash le cuenta a Tabit que ha descubierto que la boradita se está agotando, motivo por el que ha dejado la mina donde trabajaba. Pero Tash descubrió una boradita azul antes de marcharse. Tabit, sorprendido, le pide una muestra de esa boradita azul para que Maese Belban la examine.

Este experimenta con la boradita azul hasta que descubre que esta sustancia no solo sirve para hacer portales comunes, sino que, mezclada con la boradita común, se pueden hacer portales con la capacidad de viajar en el tiempo. Pero ese portal hace saber a Maese Belban que la boradita azul también sirve para navegar entre dimensiones, lo que le lleva a experimentar y a acabar en una dimensión que no era su destino. Al mismo tiempo que Tabit y Tash lo buscan, él mismo, Maese Belban, intenta salir de esa dimensión. Al final, tras



varios intentos y diversas acciones de la Academia, Maese Belban consigue salir de la extraña dimensión; además, se acepta el portal de Yunek y Tabit consigue terminar sus estudios en la Academia.

Opinión personal

Me ha gustado mucho este libro, principalmente porque tiene mucho suspense y me gustan los libros de fantasía. La mayoría de los personajes son comprensivos y simpáticos. Sin embargo, hay algunos, tales como Yunek, que no me han caído muy bien.

Tras comparar esta historia con el libro de La Historia Interminable, sinceramente, creo que ambos libros son muy buenos y recomiendo que los leáis. Y aconsejo leer este libro sobre todo al típico joven que siempre está en las nubes. Personalmente, considero que la trama está muy bien hilada, aunque en algunas ocasiones me haya parecido que la autora se ha sacado algunas cosas o ideas de la manga.

ASIER ARISTIZABAL CRUZ
DBH 1 A



Argazkian eskuinetik hasita hirugarren tokian June saria eskuetan.

Hautzaroko bertsolariak

Doinua: Ixkin hontatik idazten dizut (Mikel Urdangarin)

Gipuzkoako 35. txapelketan

Aurten ere hantxe izan ziren ikastolako 50 ikasle Her-
naniko Biteri Kultura etxean, Gipuzkoako bertsopaper
lehiaketan parte hartzeko intentzio eta ausardia biziz.

DBHko 1. mailakoei ez zitzairen hain gai erraza suerta-
tu bi bertso idazteko: HAMAR URTE BARRU IZAN
NAHIKO NUKEENA MARRAZTEN ARI NAIZ.

Ordubetez han aritu ziren jo eta su gure ikasle bertsola-
riak, ahalik eta bertsorik ederrenak borobildu nahian.
Eta ondorioz, emaitzak ere ez dira txarrak izan. Ikasto-
lako June Manjarres ikasleak aipamen berezia jaso
zuen. Hona jarraian June goian aipatutako gaiaren
gainean idatzi zituen bi bertsoak:

1

Marraztan hasi eta izan dut
hik sekulako trantzea
handitzean zer izango naizen
tokatu zait pentsatzea
betidanik jakin dut zer izan
baina zaila da lortzea
gauza hoberena izango da
kantuekin azaltzea.

2

Gurasorik gabeko hurrekin
gordeketan jolastea
gurpildun aulkitan daudenekin
pinguinoz moztortzea
amets batez beste munduetara
korrika bidaiatzea
nire irrifar alaiarekin
zoriona banatzea.

DROGAMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIO PROGRAMA

Drogamenpekotasunaren prebentzio programa aurre-eramatzen da hiru mailatan, hain zuzen ere, DBHko 1., 2. eta 4. ean. Ikasleekin, tutoreak, Etikako irakasleak eta adituak elkarlanean aritzen dira. Saiotetan drogei buruzko informazioa eta horien kontsumoari lotutako hainbat alderdi lantzen dira.

DBH 1. mailan Agipadeko ardurapean tabakoaren kontsumoari aurre hartzeko programa lantzen da ikasleekin eta horretarako Etikako 4-5 saio erabili dira.

DBH 2. maila, alkoholaren kontsumoari aurre hartzeko programa landu da bereziki. Agipadeko arduradunak gela bakoitzean 2 orduko interbentzio bat egin du. Saio hauez gain, Etikako 2-3 saiotan ikasleek bere zalantzak, kezak bideratu dituzte eta taldeko lana egin dute beraien interesetik abiatuta.

Landu dituzten atalak:

- Alkoholari buruzko informazioa sakondu eta honek dituen ondorio eta eraginak ezagutarazi.
- Gaur egungo alkoholaren inguruko lege neurriak ezagutu.

- Alkohola kontsumitzeak zer nolako arriskuak dituen ohartarazi.

Aspektu hauek garatzeko ezinbesteko beste batzuk sakondu dituzte:

- Zentzuzko erabakiak hartzen jakitea garrantzi handiko trebetasuna da bizitza osoan zehar.
- Aukera guztien abantailak eta desabantailak aztertutakoan, egoera bakoitzean egokiena den erantzuna aukeratzeko gai izatea eta autonomiaz egitea (gainerakoen iritzia kontuan hartuta, baina bakoitzak bere iritziei eutsita).
- Prebentzioaren helburua erabakitze prozesu hori hobetzea da, neurri handi batean. Drogak hartzeko erabakia ez da egun batetik bestera aukeratzen den ekintza bakarra, aukeraketa ugari osatutako katea baizik.

DBHko azken kurtsoan, 4. mailan, polikontsumoaren inguruko programa lantzen da bereziki. Agipadeko arduradunak gela bakoitzean 2 orduko bi saio zuzentzen ditu.

Hemen DBH 2. mailako ikasleek eginiko lanen laburpena ikus ditzakezu.



Plastika

Oinarrizko marrazketa teknikoarekin hasi ginen. Jarraian, konposizio libreak etorri ziren, beti ere aurreko marrazketekin loturikoak.

Ondoren, kolore primarioen eta sekundarioen lanketari ekin genion, eta kolore beroko eta hotzeko gamak bereizten saiatu ginen, beroiekin jolastuz eta margo-tuz. Konposizio artistikoak, komikiak...

Amaitzeko, marrazketa artistikoa izan da jorratu dugun hurrengo atala. Animaliak, paisaiak, gizakiak..

Erakusketa ttiki-ttiki honetan ikus daitezke gure arte lan zenbait. Erakusketa osoaz gozatu nahi duenak, ikusgai dauka ikastolako gure mailako pasiloan.





ESKOLA AGENDA 21erako IKERKETA PROIEKTUA

DBH 3. MAILAKO IKASLEEN ASTEKO KIROL JARDUNALDIA

Eskola agenda 21 programaren baitan eta aurtengo ikasturtean landutako gaiaren ildotik, Eli-kadura Jasangarria, Haurtzaro Ikastolako DBH 3. mailako ikasleek astean zenbat ordutan kirola egiten dugun aztertu dugu.

Lan-prozesu honetan, matematikan aztertutako jakintza gaiak eta IKT baliabideak uztartu dira. Horrela, matematikako kompetentzia espezifiko-
ez gain, IKT kompetentziak lotu ditugu.

Horretarako, lehenik, inkesta prestatu dugu, inkesta pasatzeko populazioa eta lagina definitu ostean, berriz, mailako datu bilketa gauzatu dugu. Estatistikak eskatzen duen lan prozedura jarraituz, datu horiek ordenatu, parametro zentralak eta estatistikoak kalkulatu, datuen adierazpen grafikoak irudikatu eta azkenik, emaitzak interpretatu dira.

Hauek dira ikerketatik ateratako ondorioak.

Parametro zentralak aztertuz gero, DBH 3. mailako ikasle gehienek 2 orduz kirola egiten badute ere, mailako batez bestekoa 5 ordukoa da.

Sakabanatze parametroek adierazten dutenaren arabera, ikasleen erdiek 2 ordu eta erdi eta 9 ordu bitarteko kirol saioa egiten dute astean zehar eta ikasleen %70ek 2 ordu eta 10 ordu bitartekoa.

Egilea: Garazi Elgarresta



ANE BERGARARI ELKARRIZKETA

DBH 3. mailakoak kazetaritza munduan murgildu gara hirugarren hiruilekoan barrena. Ane Bergara ekarri dugu gure artera elkarrizketa egiteko asmoz. Elkarrizketa hau hurrengo egunotan idatziko dugun erreportaje bateko zati bihurtuko dugu.

Ane Bergara 28 urteko futbolari profesionala da. Bere futbol ibilbidea bere herrian, Beran, hasi zuen mutilen artean, hango taldean, Gure-Txokoan. Handik Hendaiako talde batera igaro zen eta laster zen Realean. Bertan jokatzeko ari zenean, Espainiako Selektzioak konbokatu zuen Eurokopa jokatzeko. Ibilbide horretatik itzultitakoan, Espanyol futbol taldeak fitxatu egin zuen eta bertan eman zituen urte batzuk.

Futbol ibilbidearekin batera ikasketak egin ditu Bartzelonan. Batetik, IVEF eta bestetik, fisioterapia, nahiz azken hau amaitu gabe duen. Une honetan, Realean dabil berriz ere, maisutza ikasketak egiten dituen bitartean. Ez du baztertzeko entrenatzaile izatea, baina irakaskuntza eta kirolak uztartu nahi lituzke etorkizunean, emakume futbolariak ezin baitute erretiroa futboletik lortu. Oraintxe, hurrengo urtean jokatu diren Mundialetarako sailkatu egin da.

Guztiongan eragin zuen futboleko jokatzeko goseak, Realean nahiz Gure-Txokoan, Aneren txoko gustukoenetan. Iraganari buruz nahiz etorkizunaz egindako galderek ondorio bakarra erakutsi ziguten: ezina ekinez egina izan daitekeela.

Futbolaren espiritua zabaldu du gure mailan eta jakin-mina areagotu zaigu egindako galderen erantzunekin. 50 bat galdera egoki prestatu genituen guztion artean, eta elkarrizketatzaile modura aritu lanean, serio eta alai, harrituta eta irribarrez, jakin-minez eta irrikaz.

Elkarrizketatzaile izatetik berri-emaile izatera pasatzea dugu hurrengo pausoa. Auskalo zenbat kazetari aterako den etorkizunean gure artetik!

Udane Alberdi, Asier Fernandez, Xabier Alberdi, Zuhaitz Oiarzun, Maider Ezkerro, Lur Gaztelumendi, Ekhi Aristizabal, Mattin Apaolaza eta Xuban Fernandez de Gorostiza





DBH 2 - 4. maila

APRIL 12, 1492

Sixty years have gone since the great devil arrived on our secret land, although I can remember that day as if it was yesterday. I was 16 years old, no more. We lived in our tribe, called the Taino, on grassy plains and lowland rainforests. We were in general handsome and clean-shaved people, and many of us wore face and body paints. We are the American natives, the real discoverers of America. We built hammocks to sleep in and men smoked tobacco while women told stories. In our culture, old people took care of children and prepared meals. My work was to cultivate the fields, together with the young women of my tribe, while the young men hunted snakes, turtles and iguanas. Life was very peaceful.

I was working on the land when suddenly my cousin Aukan, who was 18 years old, came running and shouting. He told us that he saw three ships arriving to our coast while he was fishing. We were all surprised, and we ran to the coast. It was true, in less than twenty minutes, three large wooden boats landed and strangely dressed men got out and kissed the ground. The captain was Columbus. The Taino worshipped a supreme god, but they also believed in lesser spirits. When the strange man arrived, people believed he and his men were gods. I didn't like them. I was the only one in my tribe who thought that. The others were so excited to think clearly, but Columbus and the other men were trying to conquer our land. The Spanish trip had reached Guanahani. According to them, we hid ourselves in the bushes when they arrived. That's not true. We were all waiting for their arrival. I knew that our lives would change from the moment the devil kissed the ground. They thought that we were slaves, animals. Columbus did whatever he wanted with us.

During the first days, everybody was amazed at the Europeans' ships and their beautiful colors. All the people welcomed them into their homes, and were sure Europeans were god. What fools! Columbus wanted to convert us to Christians and he forced six Taino to be his guides as he toured to other islands.



Then, he took these captives back to Spain with him. People were blind and they didn't realize what this man was doing. Little by little, though, the situation was getting worse and people began to believe me and to think like I did.

During another Spanish voyage, many Taino were beaten and murdered. One of them was my cousin Aukan, with other young people. Our town was very angry! These men reached our land, they said that they conquered it, they wanted to impose their religion, and they murdered people! How did we allow this to happen? It was not fair! Many people were against Columbus, the image of Europeans changed very quickly, and they were not welcome any more. We couldn't allow that to continue. So that, all the tribe met in my house, and we decided that we had to do something to stop them, because some of the inhabitants in the village were homeless in their own land. Finally, we decided to take the Europeans' guns. Therefore, they couldn't attack us.

That night we went to Columbus' camp and we took their weapons while they were sleeping. The next morning, when they realized, they came to our homes, but we were waiting for them with the weapons in our hands. Many of the Taino started to shoot them and we killed some of Columbus' men.

They saw that we weren't as silly as they thought, and that we were against them. People didn't stop shooting. Immediately, those coward men took their big ships and returned to their lands.

With passing time, everything was tranquil, but life has never been the same for us since those days in 1492. We will never forget it in our life.

Udane Altuna (DBH 4 A)

IKERKETA LANA DBH 4. mailan

Bizitza ikasteko prozesu etengabea da; beti dugu zer ikasi eta, horren ondorioz, zer irakatsi. Eta ikasi eta irakatsi horretan, bide batez, gizartearekin, ingurumenarekin, munduarekin harremanetan jartzen gara eta haien bilakaeran eragile, subjektu aktibo bihurtzen. Horren ildoan, ikertzea bada ikasteko modu aparta eta horri heldu diogu Euskara eta Literatura irakasgaien.

IKERKETA LANA
HOMOSEXUALITATEA



Pasaiako Itsas Kultur Faktoria - ALBAOLA museoan

Martxoaren 24an, DBHko 4. mailako Biologia-geologia ikasgaia hautazkoa egiten duten ikasleak bi eguneko ibilaldi batean zeuden bitartean, Teknologia eta Kultura klasikoa egiten dugunok ibilaldi bat egin genuen Pasai San Pedron dagoen Itsas Kultur Faktoria-Albaola fundazioa bisitatzeko.

Goizeko 8:00etan, beti bezala, ikastolan elkartu ginen, Tolarietako autobus geltokira abiatu, lineako autobusa hartu eta Trintxerperaino joateko. Bertatik, Eskalerila-seko geltokitik, Trintxerpe zeharkatuz, San Pedroko Albaolaraino joan ginen oinez.

Bisita interesgarri hura arretaz entzun ondoren, hamaiketako jan, eta etorri ginen bidetik itzuli ginen. Zoritxarrez, eguraldia ez genuen oso lagungarri izan itzuleran, baina aterkiak eta zirak genituenek, ez zen eragozpen handirik izan.

Ordubata ingururako, berriro ere ikastolan ginen, bazkaltzera joateko prest eta San Juan baleontziari buruz zertxobait gehiago jakinda.



San Juan baleontziaren errepika

Pasaiako Itsas Kultur Faktoria-ALBAOLA museoan XVI. mendeko San Juan baleontzi euskaldunaren erreplika ari dira eraikitzen. Izatez, Ternuarainoko (Ipar Amerikako kostako zonaldea, gaztelaniaz "Terranova" esaten diotena) bidaia egin ohi zuen kargaontzi bat zen, ehizatutako baleetatik eratorritako produktuak berriz ere Europara ekartzeko erabilia.

Bidaia horietako batean, Ternuako Red Bay badian hondoratu zen 1563an. Datu bitxi moduan, aipa daiteke badiari eta bertako herriari izena baleontzi euskaldunek Ameriketara egiten zuten bidea hutsik ez egiteko bodegan eraman eta han husten zituzten adreilu gorrien ondorioz jarri zitzaizela (Red Bay-k Badia Gorria esan nahi du).

1978. urtean arkeologo kanadarrek ontziaren aztarnak egoera bikainean aurkitu zituzten, eta 30 urte inguruko ikerketaren ondoren identifikatu eta proiektuaren jarraipena adostu zuten ikerlari kanadar eta euskaldunek elkarlanean: Pasaian itsasontziaren erreplika bat eraikitzea Donostia 2016 europar kultur hiriburutzaren pean.

Orain, San Juan naoaren indusketa-lanak UNESCO-ren Ur-azpiko Ondare Kulturalaren irudi dira.

2013. urtetik hona urontziaren eraiketan buru-belarri sarturik dabilta, eta egitura nahikoa aurreratua daramatela esan daiteke.

Jokin Irastorza eta Paul San Sebastian





IPARRALDEKO ETA OIARTZUNGO Herabeen arteko trukea

Aurten ere, Baionako Etxepare Lizeoan ikasten ari diren Iparraldeko ikasle eta Hautzaroko DBH 4. mailako Biologia-Geologia arloko ikasleen arteko trukea berriro dugu Muga Gaindiko Programari esker. Ikasurte honetan Eurohirian kokatutako Oarso eta Txingudi aldeko paraje ederrak bi ikasletoetako ehun ikasleek ezagutu eta gozatu ahal izan dituzte; bi egun eta tarte-ko gaua elkarrekin pasa baitituzte.

2005. urtetik, Euskal Eurohiria garatzeko mugaz gaindiko agentziak mugaz gaindiko eskola-trukeen programa bat antolatzen du urtero ingurumenaren gainean. Aurten, iaz egin bezala, "Korridore ekologikoak" gai nagusitzat hartu da. Gazteak Euskal Eurohiriaren eraikuntzan erabat integratzeko helburua duen proiektu honek hau ere bilatzen du:

- Euskal Eurohiriko ikasleek ingurumeneko gaiei buruz duten sentsibiltatea areagotzea.
- Kultur trukea erraztea, taldeko lana eta informazio-ko teknologien erabilera sustatzea harreman pertsonaletan.

- Ikasleak gure lurraldeak duen kultur eta hizkuntza aberastasunaren gainean kontzientziaztea, hiru hizkuntza ofizialen ikasketa eta erabilera sustatuz (euskara, frantsesa eta gaztelania).

- Eurohiriaren eraikuntzan parte hartzea, bertako proiektu garrantzitsuetan esku hartuz bereziki, eta oraindik dagoen buruko muga haustea.

Oiartzundik eta Baionatik ateratako autobusak Irungo Bidasoa ibaiaren ondoan bat egin eta aipatu ikasleek bi talde handitan banatu genituen eta programa paraleloa jarraitu ahal izateko bi binomio osatu zituzten. Segidan, binomio bakoitzak bere planari eutsi eta lehenak Pasaia joan ziren, Albaola Itsas Ondarearen Faktoria bisitatzerako. Bisita bukatu ondoren, Pasaian bertan bazkaldu eta bazkalostean, Hondarribiko Jaizkibel mendira igotzeko intentzioa izan arren, Oiartzunen gerturatu behar izan zuten, euri eta lainoan, mendira igotzeak zentzurik ez zuelako. Arratsaldea Oiartzunen eman ondoren, afaldu eta lotara Irungo Martindozenea aterpetxera joan ziren.





Beste binomioko ikasleak, ordea, Irundik Hondarribiko Guadalupe mendira igo ziren, Programaren gai nagusia den "Korridore ekologikoen eta paisaiaren azterketa" egitera. Hauek, Guadalupe bazkaldu eta arratsaldean, Albalako Faktoria bisitatu zuten. Ondoren, euripean ere, Aiako Harria Parke Naturaleko Arritxulo aterpera igo eta bertan eguneko azken orduak elkarrekin pasa zituzten. Afalosteko gaubelan txiste eta kantuan aritu ziren.

Biharamunean, ehun ikasleak Hendaiako Beltzenia frontoian bildu ziren, goiza jokotan, dantzan eta kirolean emateko. Irunen lo egin zuten ikasleek aterpearen gertutasunari esker, Txingudiko Badia zeharkatzen duen bidegorritik, oinez kilometro batzuk egin eta Bidasoko paraje ederrez, euripean izan bazen ere, gozatu zuten.

Datozen ikasturteetan, Muga Gaindiko programaren helburuekin bat eginez, esperientzia honek Hegoalde eta Iparraldeko nerabeen arteko ezagutza areagotzeko aukera interesgarria eskaintzen duen heinean, errepikatzen ahaleginduko gara.

Ramon Gorrotxategi





Errota

**Errota zahar maitea
Uraren ertzean
Uraren ertzean da
Basati beltzean:
Negar egiten dezu
alea xehetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.**

(Hitzak: Juan Mari Lekuona. Xabier Lete eta Lourdes Iriondok kantatua)

Errota hitza latineko rota (gurpila) hitzetik dator eta alea ehotzeko tresna edo mekanismoa adierazten du. Tresna horren erabilera Neolitotik (K. a. 3500) datorrela badakigu, hainbat aztarna aurkitu baitira. Gainera, erromatar-iberiar kulturen erroten erabilera oso zabaldua zegoen: erromatar gudarostean, hamar pertsonetatik batek eskuzko errota bat baitzeraman. Hori dela eta, errota hitza erromanizazioaren adierazlea dela esaten da.

Errota Euskal Herriko ekonomian, kulturen eta ohituretan garrantzi handia izan duen gailua izan da eta industria tradizionalaren adibiderik argienetakoa da; gauza bera esateko zenbat hitz dauden ikusita ohar-tzen gara horretaz. Zenbait adibide jartzearen: bolua, eihera, eiara, eihara, igara, ihara, egira eta ehotegi. Euskal Herriko zein leku, halako hitza. Bestalde, hainbat euskal izenetan ere aurki dezakegu errota: Rotaetxe edo Errotaetxe, Roteta edo Erroteta eta Errotabarri besteak beste.

Abizen horietako bat, Roteta hain zuzen ere, da erro-tarekin dudana loturetako bat, lotura sendoa niretzat, baina hutsala gainontzekoentzat. Alegia, Roteta entzun, eta, nork pentsatuko du ba erro-tarekin zerikusirik dudala? Horixe bera da amorrua ematen didana. Zergatik? Ez dakit. Errotak haurtzaroko oroitzapenak gogora ekartzen dizkidalako beharbada.



Oiartzunen jaio nintzen, senide bakarra artean, eta aito-na-amonen etxe ondoan bizi nintzen nire gurasoekin. Ikastolatik itzulitakoan txamarra utzi eta erro-tara jaisten nintzen jolastera batzuetan, eta laguntzera bestetan. Birraitonarekin errotak ehotzen zuen artoa eta garia jasotzen nituen, aitonari baserriz baserri pentsuaren banaketan laguntzen nion eta amonarekin kartetan jokatu eta bezeroez arduratzen nintzen. Errotak etengabe egiten zuen lan eta familiako bizimoduaren oinarria zen. “Errotara al zoaz?” galdetzen zidan amak etxetik ateratzen nintzen aldiro, hori baitzen nire aisialdiko jarduera. Lagunek parkean jolasten ziren bitartean, ni han nenbilen, erro-tan, arto eta gari zakuen gainean saltoka.

Handik urte batzuetara ordea, birraitona hil zen, Yurrita Errota berrabiarazi zuenaren semea. Horrenbestez, aito-na-amonek errota itxi zuten. Mendeetan zehar martxan aritu zen hura. Momentu hartan ez nintzen ondorioez jabetu: ez nuen erro-tan jolasteko aukera gehiagorik izango, nire bizitzako etapa zoriontsuena-rtiko baten amaiera zen.

Ordutik gaurdaino ez dugu errota hitza maiz erabili. Alabaina, zenbait oiartzuar honela zuzendu izan zaizkit: “Zu, zea, erro-takua!”. Hori da inoiz ahaztuko ez dudana esaldia, poza sentitzen baitut hori entzuten dudanean, oraindik norbait gogoratzen baita nire haurtzaroz, nire arbasoen ogibideaz.

Orain arte, erro-tari lanbideak generazioz generazio irauten zuen, baina bideak helmuga duela ez dago zalantzarik. Gaur, teknologikoki modernizatzen ari den gizarte honetan nekez aurki dezakegu lanean ari den erro-tari gazterik. Erroten biziraupena arriskuan dago erabat, eta baita hitzarena berarena ere. Izan ere, makinari ez bada, zertarako hitza?

Hortaz, hil-arte, badut helburu bat: nire bizitzaren zati handia den hitzak mendeetan zehar iraun dezan arduratuko naiz. Sinestekoa da hitz batek pertsona batengan eduki dezakeen eragina. Hitz ziztrin batek. Begi hutsez irakurrita beste hitzen berdina den hitza. Bihotzez irakurtzean aldiz, historia luzea duen hitza, bere esanahian batzuen bizitza daraman hitza. Eta batez ere, Euskal Herriko historiaren parte ere baden hitza. Errota. Ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

IRATI ELIZASU ROTETA

BIBLIOGRAFIA:

<http://www.idazten.com/index.php/saiakera/50-idazlanak/saiakera/480-saiakera?directory=476>



XANISTEBANETAKO TXOSNA, IKASTOLETAKO AUZOLANAREN ADIBIDE

Oiartzuarrok badugu langile finak izatearen fama, baina ezin uka parranda-kontuak ere pixka bat gustatzen zaizkigula. Gure kasuan behintzat bai. Maiz, biak uztartzeko garaian izaten dira kontuak!

2001. urtean guraso talde batek, Xanistebanetan familiek afaltzeko behar adinako eskaintzarik ez zegoela ikusirik, afariak emateko txosna jartzea ideia ona izan zitekeela pentsatu genuen, eta baita Kontseilu Errektorean proposatu ere. Gaia aztertu ondoren, ekimen horrek aipatutakoa baino helburu gehiago lortzeko balio zezakeela ikusirik, ekimena abian jartzea erabaki zuen Kontseilu Errektoreak. Ez legoke gaizki ekimen honen helburuak hemen gogora ekartzea:

- Oiartzunen Ikastolaren presentzia indartzea.
- Ikastolako kideen arteko (guraso, langile, ikasle, guraso / langile / ikasle ohi) kohesioa indartzea.
- Ikastolako komunitateko kideen arteko elkarlana, auzolana bultzatzea.
- Xanistebanetako festetan herritarrei ekarpen bat egitea, afariak emanez, modu horretara herritarrei afaltzen festa-gunean gelditzeko aukera eskainiz. Gogoratu behar da Ikastolako txosna jarri aurretik herritar asko afaltzera festa-gunetik auzotara edo etxera joaten zirela, festa-gunean ez baitzegoen denentzako moduko eskaintzarik, eta ondoren asko ez ziren festa-gunera itzultzen.
- Ikastolarentzat hain beharrezkoak diren diru-iturrietako bat izatea.
- Bailarako ikastolen arteko harremana sendotzea

Bai 2001. urtean talde dinamizatzailea osatu genuen gurasook, eta bai bitarte honetan taldera hurbildu direnek, urte hauetako balorazio ezin hobea egin ten dugu. Inolako zalantzarik gabe, ekimen honekin

lortu nahi ziren helburu guztiak lortu dira. Gainera, urte hauetan, lan egiteaz gain disfrutatu ere egin dugu. Gure artean lagun arteko giroan aritu gara, ilusioz ekarpenak eginez, nola hobetu hausnartuz eta denen artean partekatuz. Eta azken batean, lana ere ez da hainbestekoa izan; urtean bizpahiru bilera, eta festetan egun bateko lana, beste guraso eta langile mordo batekin batera. Gainera, eguneko lanak egin ondoren, elkarrekin festez gozatzeko aukera ere eman digu!

Esan bezala, ilusioa eta elkarlana dira talde honen motorrak, baina batzuek dagoeneko urte dezente daramatzagu eta taldea berritu eta indartzeko garaia da. Ekimenari freskotasuna eta aire berria emango dioten partaideak behar ditugu. 2001ean sortu genuen lantalde hari jarraipena emango dion lagunartea, kemen berri horrekin tabernari etorkizuneko jarraipena emango diona.

Xanistebanetako tabernaren jarraipena ez da zalantzan jartzen. Xanistebanetako taberna baita ikastolen izaeraren zutabe den auzolanaren adibide garbientako bat. Elkarlan horri eutsi behar diogu, hain emaitza onak eman dituen ikastolaren izaera mantendu nahi badugu!

Beraz, animatu eta lasai eman izena Xanistebanetako taberna gidatu eta dinamizatzen duen taldean, bada-eta nork erakutsia. Egin taldea zure inguruko lagun batekin, eman izena, eta ikastolan hain beharrezkoa den zure ekarpena egiteaz gain, herriko festaz gozatzeko beste modu bat topatuko duzu. Xanistebanetan ere, ez baita dena parranda!

2015-5-12
**XANISTEBANETAKO TABERNAKO
TALDE DINAMITZAILEA**



hautzaro.eus gara!

“Interneten ez bazaude, ez zara existitzen”,
zioen irakurritako artikulu batek.

Egia borobila izan ez bada, euskaldun eta euskal kulturaren komunitatea biltzea ez da erraza izan; batzuk org, besteak .com, haiek .net... Luzapen ezberdinak erabili behar izan ditugu.

Zorionez egoera aldatu egin da. 2014-2015 ikasturte honetan eskuratu dugun aukerak argia ikusi du eta! Beste hainbat herrialde eta hizkuntza komunitatek duten moduan, euskaldunok eta euskal kulturaren eragileek geure luzapena aldarrikatu dugu. Bada, gainera, euskal aldarrikapenak erantzun onik izango ez zuela sinesten zuenik eta Europa herrialdea identifikatzen duen .eu erabiltzea proposatzen zuenik.

Zorionez, hainbat traba gainditu ondoren, PuntuEus fundazioa sortu eta 2012.eko maiatzean .eus domeinua eskatu zuen luzapen hauek erregistratzen diren elkarteetan. Eskaria baloratu zuten eta handik urtebetera, 2013.eko ekainaren 14an, .eus domeinua onartu zutela jakin zen. Eta martxan jartzeko beharrezko lanak bukatu ondoren, 2014ko udaberritik ikusgarria da .eus domeinua Interneten.

Lehen fasean interes orokorreko entitateek lortu zuten. Eitb, Berria, EHIE... moduko elkarte zabalek. Guk, egun seinalatuan, 2014ko abenduaren 3an, Euskararen egunean, lortu genituen gure bi domeinuak; hautzaroikastola.eus eta hautzaro.ikastola.eus lehenagoko .net luzapenetik aldatzea. Egun polita hura! Polita, baina lana hasi besterik ez zen eguna izan zen hura.

www.hautzaroikastola.eus gure web orria bideratzea izan zen errazena. Web orrian bertan eginiko hainbat lotura errebisatu, gure zerbitzarian instalatuak ditugun hainbat aplikazioren helbideak eta lotura ukitu eta doiketa lanetan aritu ginen abenduan, aldaketak eguneroko lanean eragin ez zezan.

Urtarrila bitartean, hiruzpalau kontu aldatu eta posta, dokumentu eta lan guztiak eskuratzeko traba nabaririk ez gurela frogatu ondoren hautzaro.ikastola.eus domeinuko 150 kontu aldatu ziren urte hasieran. Kontu hauetako bakoitzak ikastolako posta, testu dokumentu, aurkezpen, blog, mapa, egutegi... har-tzen ditu bere baitan.





Aste santu bitarte beste domeinuko, haurtzaroikastola.eus, kontuetan LH 5 eta 6. mailako ikasleen eta ikastolako irakasle guztien posta aldatu zen.

Bukatzeko, Aste santutik bueltan, DBHko ikasleen txanda iritsi da. Guztira 600 kontutik gora aldatu dira. Eta oraindik ere doiketaren bat edo beste egin behar badugu ere, zati handi batean aldaketa txukun egin da.

Azkeneko lana blogen helbidea .eus-era eguneratzea izan da. Eta artikulua argitaratzerako ikastolako hainbat blog haurtzaroikastola.eus domeinuan izango dira.

Norbanakoen ordua

.eus luzapena erakunde, elkarte eta enpresei zuzentzeaz gain norbanakoentzat, autonomo zein partikularrentzat ere eskuragarri dago. Baina zergatik .eus?

Hona lau arrazoi.

- Identitatea adierazten du: euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen izaera.
- Merkatura eta bezeroarengana gerturazten zaituen domeinua da, bezeroaren hizkuntzan saltzeko eta euskal enpresen kalitate-ziurtagiria adierazteko.
- Bilatzaileen arau berrietara moldatzen eta identifikatzen laguntzen du.
- Marka babeste du, bidegabe erabil ez dezaten.


Nola eskuratu?

www.domeinuak.eus helbidera sartu eta nahi zenukeen izena....

.eus zure esku!

Josu Arotzena
IKT dinamizatzailea





Hamahiru urte luze jarrera onean
izan zaretelako gure aldamenean

esan nahi dizuegu azken egunean:
zuen eixera itzuli nahi dizuenean.

Hautzaro Ikastola, 2015eko ekaina



Aurretik atzera eta ezkeretik eskuinera

LEHENENGO ILARAN:

Haizea Urkia, Enara Elizegi, Eñike
Irazusta, Intza Errandonea, Irene Ozkoidi,
Amets Hernandez, Maialen Oñartzabal,
Amalia Cortes, Lander Jimeno, Udane
Etxebeste, Ian Villar, Irati Zabala.

BIGARREN ILARAN:

Egoitz Etxabe, Olatz Irigorri,
Ainhoa Suarez, Maddi Etxebeste,
Eneko Intxauspe, Aitzuri Noble, June
Urra, Peru Ruiz de Azua, Maddi Uriarte,
Alazne Cruz, Udane Galardi.

HIRUGARREN ILARAN:

Mikel Iparraguirre, Nerea Oñartzabal, Paul
San Sebastian, June Ibarquien, Oier
Mugarza, Udane Altuna,
Garazi Lizaso, Oier Etxebeste, Maddi Puy,
Ibai Tellechea, Irati Eskudero, Maksim
Kokarev, Maialen Lekuona, Jagoba Zapirain.

LAUGARREN ILARAN:

Oihan Lopez, Peru Bengoetxea, Uxue
Oñarvide, Garazi Etxeberria, Maddi Soria,
Iban Amauri Agirre, Mikel Saez de Eguilaz,
Naroa del Rio, Jon Asensio, Beñat Azkarate,
Naroa Prieto, Beñat Ibarquien.

BOSTGARREN ILARAN:

Aitor Leonet, Manex Apaolaza, Imanol
Ugalde, Goliuri Arzallus, Joseba Bert,
Unai Flaño, Oihan Astigarraga, Iker
Azpiroz, Mikel Letamendi, Endika
Gonzalez, Ibai Etxeverria, Jokín
Iraitorza, Imanol Lopez.



www.haurtzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARBITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Iruñ Auzoa - 20305 IRUÑ
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@aiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



GEZAK S.C.
KINLOREGETAKO KIDEAKETIK
GOSTOEN INTEGRAL PEBLEPONTAKO



ELORSINGI KINLODEIA • Edifizioa: 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 802
F: 943 490 591 • gezak@telefonosnet.es
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)